

PATXI LASA JAUREGI-RI ERANTZUNEZ

Txillardegi
(Los Angeles, 1982ko Otsailaren 8)

EUSKERA-n, XXVI, 1981, 67-91 orr., *Mugagabea eta beste zenbait gauzatxo Juan Tartasen 'Ontsa hiltzeko bidean'* deritzan artikulua dator, Patxi Lasa Jauregik sinatua.

Oso interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zait horrelako lanak egitea.

Kasu honetan nire iritzi batzuk bereziki aipatzen dituenez gero (ikus 67-68 orr. batez ere); eta azterketaren ondorioztat ematen dituenak (ikus 78.orr. oharra) zuzenak ez direnez gero, lerro hauek hurrengo EUSKERA-n argitaratzea eskertuko nizukeke.

"Mugagabea numeralekin" deritzon pasartean (76-78 orr.) 25 adibide ematen ditu P. Lasak.

Denek ez dute balio, ordea, *"Mugagabea numeralekin"* arazoa argitzeko.

4, 7 eta 21 adibideak *deklinabideari* dagozkio, eta ez aditzarekiko komunztadurari.

1, 6, 9, 12, 13, 20, 22 eta 24 delakoak, *pluralak* dira, eta ez mugagabeak.

Beraz: 14 adibide gelditzen dira.

Hona hemen zerrenda:

- 2.—Ediren *DUZU LAUR kapitulu*
- 3.—BADIZU BI gauza
- 5.—Bi bekatu... BAITZUTIAN kometitu
- 8.—BI ithurri... egin ZIALA
- 10.—eman ZIAN... ZAZPI seme eta HIRUR alaba
- 11.—eman ZERON... ZAZPIMILLE ardi
- 14.—MILLA mesperexu... egin ZION
- 15.—MILLA injurio eta MILLA mesperexu egin ZIAN
- 16.—HIRUR gauza gomendatzen DRAUZIET
- 17.—BI gauza behar DA
- 18.—Ikhusi DU BI sagu

19.—(Ez dakigu plurala den: esaldi osoa behar)

23.—Behar ZIAN BI kondizione

25.— BADU gure etsaiak MILLA artificio

19.—horretaz irizpide sendorik ematerik ez baitago (itxuraz plurala da, baina aditza singularrean), hau dugu:

BATETAN (5), aditza pluralean (ez ote da errelatiboa?).

HAMAHIRUTAN, aditza singularrean.

Hitz batez, % 93-tan mugagabearekin aditza SINGULARREAN. Askotan idatzi izan dudanaren arauera.

78.orr.ko Oharra, beraz, egiaren kontra idatzia da.

Besterik gabe, agur!